

BALIO PROPOSAMENA

Eskaintzen dugun zerbitzu honek ikasle bati eskola orduetan sortu ahal zaizkion beharrak asetzen ditu. Adibidez:

Alde batetik, janaria (denbora gehiegi ematen baitute klasean, ezer ez edan eta jan gabe).

Ikasleentzako osasuntsuak diren elikagaiak eskaintzen dira (eguneko fruta, entsalada...).

Janariaz gain, eguneroko beharrezkoak diren produktuak ere izango dituzte eskuragarri ikasleek (tampax, hileroko higienarako produktuak).

Azkenik, ikasteko materiala eskaintzen da (tipex, boligrafoak).

Gainera, bestelako Vending makinetatik bereizten gaituena da bizimodu osasuntsua bultzaten dugula.

Prezioari dagokionez, eskuragarria da edozein ikaslerentzat, hau da, prezioak ikasleei egokitzen zaie, haien erosketa ahalmena ez delako neurri handikoa, txikikoa baizik.

